

ZUAITZAK, ETXEAK ETA BESTE KONTU BATZUK

Eskoletako ikasturtea amaitu dan ile onetan, aukeratu barri doguzan Aldundi eta Udalena asi egiten da.

Lorailean izandako auteskundeen ostean alderdi guztiak geratu dira pozik: Batzuk boto geiago lortu dabezalako, besteak antzera geratu diralako eta boto-galtzaileek arerioak uste ebena baino boto gitxiago galdu dabelako.

Azkenengo oneentzat au momentuzko egoera baino ez ei da, gainera komunikabideek (irriti, izparringi, telebista...) sortua.

Inguruan daukagun ikuspegi politikoa oso zabala izan arren (ez ete da zabalegia gu lau katu izanik!), talde aundi bitan banatuko neuke, abertzaleak direnak (zelangoak edo alangoak, desberdintasunik egin barik) eta ez diraenak (onek zelangoak, alangoak eta bestelakoak dira, danatarikoak).

Auteskundeetako emaitzak ikusita, abertzale kopurua %60koa da gitxi gora-beera. Boto emoleen artean, erdia baino geiago (kontuz, ez askoz geiago) baina bakoitza bere aldetik, banatuta eta alkarren kontra. Badirudi abertzaletasuna ezik, beste gauza batzuk artzen direla elburuztat arerio politikoa erratuz. Ez da arritzekoa indarrak makaltzea, kanpokoekaz burruka egiteaz gain etxeokoz ere egin bearra badago.

Baina emaitzetan batez ere argi geratu danez gorakadarik aundiena izan dauan alderdia PP izan da. Eta ez ori bakarrik, ezin dogu esan aintzinako "patxikozaleen" azkenengo aztarenak diranik, ikusi ere ainbat gazte ikusten da euren artean eta, bai **buru** eta beste alderdikieen artean.

Zer da **PP-k** eskeintzen deustona gaztediari bere aldera erakartzeko? Ez dakit, Gizarte baketsu eta eroso baten itxaropena bearbada. Dana dala geiago arduratzen nau alderdi abertzaleek eskeintzen dabena jakiteak.

Eremu abertzalearen zuaitzak adar bi daukaz: HB aide batetik eta EAJ-EA bikotea bestetik.

Zuaitz oneri inoiz beste adar batzuk ere urten jakoz baina, edo ingertu egin dira edo kimutuak izan dira, dana dala desagertu egin dira.

Badaukat nire susmoa desagertze orren erruduna gaisotasun edo "virus"-en bat izan ete dan.

Ez ete dabil satorren bat zuaitzaren sustraiak jaten!

Zer da HB-k gaztediari eskeintzen deustona?

Burruka. Kontuz! Ez darabil berba au gaur kalean erabiltzen dan esanai beragaz (bide-oztopo, apurketa, arrikada, suete...) bere esangura utsean baino: zerbaiten aldeko aldarrikapena.

Gertatzen dana zera da, aldarrikapen orretariko asko aurrerago aipatutako ekintzetan amaitzen direla.

Sutsuegiak? Kementsuegiak? Alaiak eta borrokalariak? Ez dot uste bizimodu erosoegia danik eta arriskuen artean baztarkerian jaustearena ere badago. Baina beste aide batetik gazteak arriskuzaleak ere badiranez...

Y*

Beste talde biak, EAJ eta EA-k, batez ere auteskundeak eltzen diranean izkuntza gogortu egiten dabe, eta eskubideak ozenkiago, altuago, aldarrikatu. Auteskundeak igaro ondoren urak bere bidera joaten dira, izkuntza baretu egiten da eta gogoa mantsotu.

Badirudi botoen bearrirenagaz batera itxura aldatu egiten dala: aurpegia garbitu, jakea aldatu eta kalera urten.

Boto kontaketa egin ostean, emaitzak aztertu eta gero, orduan datoz etorri bearrekoak: utsak ikusi eta errakuntzak zuzendu. Orduan izaten da etxearen teilatua eta ormak konpontzea eta txukuntzea.

Baina begiratzen da zelan dagozan barruko ormak? Eta zutabe eta agak? Geiago esango neuke, emoten jako ikustaldiren bat oinarrirei, etxearen euskarrirei?

Adi ibili berarko gara abertzaletasunaren etxeari, gaur inguru guztietatik erasotua ("arazoaren sortzaile" - "atzerakoia" - "arrazakerizalea" - "baztertzalea" - "berekoia" - "batasunaren aurkako"), ez dakion gertatu Pisako dorrearena.

Ori ere or dago, ederra, liluragarria, txarmagarria, polita, ikusgarria, mundu guztiak miretsia, baina, danak dabilz salbatu gurean.

Oinarriak lurrean ondo finkatuta ez daukazanez, okertuta eta erdi jausita.

Ezin da, ikusteko izan ezik, beste ezertarako erabili, ez dau ezertarako balio, turismoa erakartzeko ez bada.

Gure etxearen oinarriak ere ez badoguz jagoten, aurki, laster egoera bardinean ikusi geinke.



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.